

MEMORIA



BIOTERRA
2023

Ekainak 2.3.4

F I C O B A

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren,
energia berriztagarrien eta kontsumo
arduratsuaren Euskadiko azoka

INFORMAZIO OROKORRA

DATU PRAKTIKOAK

Edizioa: 20

Data: 2-3-4 junio 2023

Bisita kopurua: 10.021

Erakusketari kopurua: 121

Erakusketa azalera: 1.373 m²

Ordutegia: ostirala eta larunbata 10:00etatik 20:00etara / igandea 10:00etatik 19:00etara

Web: bioterra.ficoba.org

2023ko EDIZIOAREN XEHETASUNAK

121 erakusketari
10.021 bisita

Bioterra 2023 ospakizun-edizioa izan da, Euskadiko EKO azokaren 20. edizioa izan da eta.

Azokaren edizio berezi honetarako, Bioterrako publikoarentzako jarduerak sustatu dira, eta hurrei eta familiei zuzendutako jarduerak indartu dira, tailer dinamiko hauekin: baratzezaintza, energia berriztagarriak, pintura-gunea eta zaldiko-maldiko jasangarria.

Sarrera doakoa izan da, publikoak aldeztu aurretik izena emanda, bai online azokaren aurretik edo bertan.



erakusketarien

%72a
pozik dago
azokaren
emaitzekin

Enpresa erakusketarien % 72-ak azokaren emaitzekin pozik edo oso pozik daudela adierazi dute. Azpimarratzekoa da parte hartzen duten enpresen % 84-ak azokan erakusketari bezala berriro parte hartzeko interesa adierazi dutela.




ERRONKA GARBIA
EVENTO AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

2023ko edizio honetan, Bioterrak ERRONKA GARBIA zigilua lortu nahi du. Honetarako, Bioterrak ezarri dituen jasangarritasun erronkak hondakinak eta mugikortasuna izan dute ardatz bezala.

Erronka garbia zigilua eskuratuz gero, ekitaldiaren seigarren edizioa izango litzateke kredentzial hori lortzen duena, hau da, bizi-estilo eta kontsumo jasangarria sustatzeaz gain, azoka bera ingurumen-jasangarritasun irizpideei jarraituz kudeatzen dela berresten duena.

Asteburuan bertaratutako ikusleen mugikortasunari dagokionez, ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren gakoetako bat, % 27,1a oinez edo bizikletaz etorri zen azokara, % 14,5a garraio publikoan eta % 46,4a partekatutako autoan.



Hitzaldien eta jardueren programa: aurten 68 hitzaldi-proposamen eta jarduera eskaini dira Biote-rako 3 egunetan zehar. 2.000 pertsona inguruk gozatu dute programazioaz azokan zehar.



Zozketak: Aurten 12 zozketa egin dira guztira, 100 €-ko erosketa-bale baten 6 zozketa, azokan gastat-zeko. eta Ekolurra-Euskadiko produktu-saski baten 6 zozketa, bakoitza 100 €-tan baloratuta.



Ekintza berezia Gipuzkoako belar-dendekin:

Bioterraren edizio honetan, Gipuzkoako belar-dendekiko lotura sendotu nahi izan da, Bioterraren emaitzen zati bat horietan irauli nahian.

Horretarako, boletoak banatu dira Gipuzkoako 100 belar-dendetan, eta honelakoa izan da funtzionamendua:

- Belar-dendako langileek boleto bat (aldez aurretik zigilatua) eman diete ohiko bezeroei erosketa bakoitzaren ondoren.
- Bezeroak bere datuak bete behar izan ditu txartelean, eta Bioterra bisitatuz gero, hautestontzi batean utzi ahal izan du boleto hori
- Astelehenean, ekainak 5, azokaren ondoren, 4 boleto atera dira hautestontzitik, eta bakoitzarentzako saria 100 euroko erosketa bat da, boletoa eman zitzaion belar-dendan gastatzeko.

Txartelak irabazi dituzten 4 belar-dendak honako hauek dira:

Ieraenea Ekodenda (Deba)
Despentsa Naturala (Azpeitia)
Labore Txingudi (Irun)
Goierriko Baratz (Ordizia)



ENEEK - Ekolurra : Aurten ENEEKek 6 eragilerekin batera parte hartu du azokan: Ekotalo, Mucha Kombucha, Bio-K, Berbelar Gaztak, Karabeleko eta Perseus. Euskadiko Kontseilu Arautzaileko kide diren Gipuzkoako enpresa erakusketariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuaren babesa jaso dute.



10 urtez Bioterran: ostiraleko inaugurazio-ekitaldian, enpresa erakusketarien leialtasuna saritzen duen garaikurra banatu zen. Aurten, 10 urtez parte hartu duten enpresak hauek dira: Quiropráctica Xabier Mendaraz, Biotza Banaketak, Vorwerk Kobold, CPAEN-NNPEK eta Irún-Hondarribia Turismoa.



EGITARAUA

ERAIKIZ GUNEA | Bioeraikuntzari, energia berriztagarriei eta energia-eraginkortasunari buruzko dibulgazio-hitzaldien gunea da, 1. pabiloian kokatua.

Gunea dinamizatzeko, EHAEOKo Iraunkortasun Batzordearen laguntza eta Ecohabitar-en parte-hartzea nabarmen izan dira.



BIOBEAUTY & ZERO ZABOR GUNEA |

Aurten, FICOBako 2. pabiloian kokatutako hitzaldien gunean kosmetikari eta larruazalaren zaintza-ri buruzko hitzaldiak gertatu dira, baita moda iraunkorrekin lotutako gaiak ere.

Aurten, Emaús Gizarte Fundazioaren laguntza ere izan du Bioterrak, eremuaren dekoraziorako. Espazioa ekonomia zirkularraren printzipioak jarraituz apaindu da, berrerabilitako altzariekin.



SUKALDEAN | zuzeneko sukaldaritzari eskainitako gunea da Bioterraren puntu erakargarrietako bat. 3. pabiloian instalatutako sukaldaritza-setetik, % 100 plater begetal eta ekologikoen proposamenak igaro dira, batch cooking-a...eta askoz gehiago!



Sukaldean egon den programazioaren artean, Kontseilu Arautzaileek eskainitako bi showcooking igaro dira: ENEEK Ekolurrak Erika Eskolak aurrera eraman duen showcooking-a sustatu du. Bertan, azokan zeuden Euskadiko eragileen produktuak erabili ziren eta hauekin batch cooking bat nola egin erakutsi ziguten.



CPAEN-NNPEK Nafarroako Kontseilu Arautzaileak Iruñeko Akari Gastrotekako Goiza Isiegas chef enbaxadorea izan du, eta azokan egon diren Nafarroako eragileen produktuekin osatutako hiru platereko menua prestatu du, Bagordi upategietako ardoa eta Afortunato Cafés-en kafea barne.



1. ARETOA | Larunbatean eta igandean, hainbat hitzaldi egin dira gune honetan. Bertan honako hizlariak izan ditugu: Fernando Valladares, ingurumenaz eta osasunaz hitz egin zuena; Carlos Taibo, klima-aldaketaren inguruan hazkunde eta kolapsoaz hitz egin zuena; Anna Esteve, osasun integratibo eta mikrobiotaz hitz egin zuena; eta Mayi Lekuona, permakulturaz aritu zena.



AUDITORIUM | Larunbatean eta igandean Ficobako auditoriumak errendimendu osoa izan du, honako hizlari hauekin: Marta Marcék menopausiari buruz hitz egin du, Patricia Restrepo-k jatean originala izatearik buruz aritu da, eta Karmelo Bizkarrak, barauari eta terapia magnari buruzko hitzaldiarekin.



YOGA DAY | Igande goizean, Yoga saioa egin da Irene Aldaren eskutik Bioterrazan. 65 pertsonak parte hartu ahal izan dute master class honetan, irakasle ezagunarekin batera.



KATA GUNEA | Azokaren hiru egunetan, ziurtagiri ekologikoa duten elikagaien dastatze-saioak antolatu dira. Jarduera 3. pabiloian bertan integratu da. Parte hartu duten enpresek beren produktuak xehetasunez azaldu ahal izan dizkiete interesdunei. 16 enpresak hartu dute parte, eta 121 pertsonak gozatu ahal izan dute jardueraz.



HAURRENTZAKO TAILERRAK ETA JARDUERAK

/ AULKI HEGALARIAK - ZALDIKO-MALDIKO IRAUNKORRA

Bioterraren 20. urteurrena dela eta, eta publiko familiarrarentzat alternatiba erakargarriak eskaintzeko helburuarekin, aurten aulki hegalaria izan ditugu Bioterrazan, etxeko txikienentzako erakarpenera ekologiko eta jasagarria, zurez egin eta eskuz eragindakoa.



/BARATZE TAILERRA

Bioterrazan ere egon da zerotik sustratua egiten ikasteko aukera, tailer dinamikoa eta etxeko txikiei zuzendua, Mattinen eskutik. 80 haur igaro dira tailer honetatik.



/ MURAL IREKIA

3. pabiloian txikienen sormenerako espazio bat jarri da, elkarlaneko mural batekin eta beste aukera batzuekin. Gune hau Artean-ek kudeatu du.



/ GARAPEN IRAUNKORRA, INGURUMENA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

1. pabiloian garapen jasagarriari, ingurumenari eta energia berriztagarriei buruzko tailerretarako gunea izan dugu, 6 urtetik gorakoentzat, Eko Oiz elkartearen eskutik.

Tailer horiek 2030 Agendarekin eta 17. GJHarekin lotutako edukia jorratu dute, garapen iraunkorre-rako munduko elkartearen inplementatzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzeari buruzkoa.



BIOTERRAZA | edizio honetan, kanpoko gune gastronomikoak 5 proposamen izan ditu: hanburgesak, Peruko sukaldaritza beganoa, janari makrobiotikoa, Carcassonetik etorritako proposamenak eta garagardo ekologikoa eta beganoa.

Bazkalorduan eta arratsaldean bertako DJ batzuek girotu dute kanpoko espazioa.



ANTOLAKUNTZA

BIOTERRA 2023 Ficobako talde profesionalak eta Batzorde Antolatzaile batek gauzatu ditu, azokako Araudiaren 2. artikuluan xedatutakoa betez.

Batzorde Antolatzaileko kideak:

EKOLURRA - Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

BLE - Biharko Lurraren Elkartea

Diputación Foral de Gipuzkoa - Gipuzkoako Foru Aldundia

Estudio de Arquitectura **Arkmonia**

COAVNGi – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala

Bilibin Circular




Bioterra 2023 erakunde hauen laguntzarekin eraman da aurrera:




DATU OROKORRAK

ERAKUSKETARI ETA BISITARIEN BILAKAERA URTEETAN ZEHAR

| ERAKUSKETARIAK




| BISITAK




BISITARIAK

JATORRI ORROKORRA



GIPUZKOAKO BISITARIAK / JATORRIA ESKUALDEKA



BISITARIEI INKESTA


Azokaren 3 egunetan zehar, Bioterra azokara etorri direnei inkesta egin zaie. Hona hemen lortutako estimazioak:

Azpimarratzekoa da inkestatutako pertsonen % 71ak Bioterra beste batzuetan ere bisitatu zuela, eta horrek Bioterrako publikoaren fideltasuna berresten badu ere, datu interesgarri bat eskaintzen digu edizio honetako publiko berriaren erakarpenari buruz (aurten publikoaren % 29a berria izan dela estimatu dezakegu eta 2022an aldiz, %8a).


Bisitariak azokan igaro duten denborari dagokionez, etorritako % 35ek baino gehiagok 2 ordu baino gehiago eman zituzten azokan, 1-2 orduko egonaldia izan da ohikoena ekitaldian. Bisitarien % 78a inguru pozik edo oso pozik geratu da ekitaldiarekin.

Bisitarien % 82ak 2024an azoka berriro bisitatuko duela dio.


Bestetan etorri zara Bioterrara?



Azokarekin duzun asebetetze maila



Bioterrara bueltatuko zara 2024an?



ENPRESA ERAKUSKETARIAK

Bioterraren 20. edizioak 121 enpresa erakusketari izan ditu. Enpresa horiek beren proposamenak erakutsi dituzte 3 pabiloietan eta Ficobaren kanpoaldean.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK, ENERGIA IRAUNKORTASUNA, BIOERAIKUNTZA



KOSMETIKA NATURAL ETA EKOLOGIKOA, TEXTILA, HABITAT, TERAPIA NATURALAK



ZERTIFIKAZIO EKOLOGIKOA DUEN ELIKADURA



121 erakusketarien jatorriari dagokionez, aipatzekoa da enpresa erakusketarien % 52 Euskadi eta Nafarroa kanpokoak izan direla. Honako erkidego hauek nabarmendu behar dira, enpresa askoren jatorria hauetako batetik delako: Katalunia (% 12), Madrilgo Erkidegoa (% 7,8), Valentziako Erkidegoa (% 7) eta Andaluzia (% 6).

Jatorria Euskadin edo Nafarroan duten enpresek erakusketari guztien % 48a dira, eta honela banatu dira lurraldeen artean: enpresa erakusketarien % 27,6 a Gipuzkoatik etorri dirau, Nafarroatik, berriz, % 10,3a. Bizkaiak % 8,6ko ekarpena egin du eta Arabak % 1,7koa.

Datu horiekin, ondorioztatzen dugu Bioterrak Euskal Herritik kanpoko enpresa erakusketariak erakartzen dituela, honek Gipuzkoan duen inpaktu positiboa nabarmenduz.



PUBLIZITATEA ETA PROMOZIOA

PUBLIZITATEA KALEAN

- 1.200 kartel jarri dira Donostia, Irun, Errenteria, Hendaia, Bilbo eta inguruko kaleetan.
- Euskotren: tiket makinetan irudia , MUPlak hainbat topo lineatan, eta sustapen-bideoa Bilboko Zazpikale geltokian.
- MUPlak Irunen
- Banderolak Irungo kale-argietan
- Ficoban zintzilikatutako olanak
- Hondarribiko eta Bilboko aireportuetan irudia
- Dbusen 3 autobusen errotulazioa Donostian, azoka baino 3 aste lehenagotik



Irudi horiek publizitate-posterretan, MUpletan, kanpoko olanetan eta beste dekorazio batzuetan erabili dira.



POSTA BITARTEKO BIDALKETAK ETA MAILING KANPAINAK

-208 denda/beste espezializatuetara posta bitarteko kanpaina bidali da

-Mailing kanpaina: 5 newsletter bidali dira (bisitari orokorra eta profesionala segmentatuz, eta azken hau ere sektoreka segmentatuz) 20.000 kontaktu baino gehiagoko datu basera (hizkuntz anitzetan: euskera-gaztelania / gaztelania / euskera-frantsesa / frantseasa) azoka hasi baino hila-bete bat lehenegotik

-Sarrera aurretiaz hartutako guztiei gogorarazpena email bitartez



Bihar ostirala ekainak 2: BIOTERRA HASIKO DA!

**Asteburu hau besterik ez duzu zure
EKO azokaz gozatzeko. Ez zaitez
etxean geratu eta zatoz!**



**3 pabiloiak eta kanpoaldeko gunea jardueraz
beteta aurkituko dituzu, eta zure interesekoak
diren gaiak landuko dira asteburu iraunkor eta
ekologiko honetan.**

ERAKUSKETARIAK

**Ezagutu aurrez-aurre ekoizleak, jakin
zeintzuk diren gustoko dituzun
produktuen atzean dauden
pertsonek.**



PUBLIZITATE TXERTATZEAK

IDATZITAKO PRENTSA

OROKORRA / MARTXOA ETA EKAINA BITARTEKO TXERTATZEAK:

- DIARIO VASCO: IRAGARKIA ETA GEHIGARRI BEREZIA
- BERRIA: IRAGARKIA ETA GEHIGARRIA
- GARA: IRAGARKIA
- GIPUZKOAKO HITZA
- TTPI TTAPA

BEREZIA / MARTXOA ETA EKAINA BITARTEKO TXERTATZEAK:

- BIOECO ACTUAL: 4 txertatze
- BUENO Y VEGANO: 4 txertatze
- TVBIO: 2 txertatze (martxoa-apirila eta maiatza-ekaina argitalpenetan)
- VIDA NATURAL: 1 txertatze
- ECOHABITAR: 1 txertatze

PRENTSA/ONLINE PORTALAK (OROKORRA ETA BEREZIA)

- BERRIA.COM
- NAIZ.COM
- ARGIA
- BIOECOACTUAL
- TVBIO
- VIDA NATURAL
- ECOHABITAR
- MI HERBOLARIO
- TXIKIS DEL BIDASO
- DE PLANES POR LA COMARCA

IRRATIA

- SER GIPUZKOA
- RADIO EUSKADI
- EUSKADI IRRATIA
- GAZTEA
- XORROXIN IRRATIA (TOKIKOM)
- EUSKAL IRRATIAK (Gure Irratia, Antxeta Irratia, Xiberoko botza, Irulegiko Irratia, Amikuseko Irratia)

HEDABIDEETAN IZANDAKO INPAKTUAK

Bere 20. edizioan, 71 inpaktu kontabilizatu dira hedabide desberdinetan:

EGUNKARIAK/ PRENTSA OROKORRA	11
IRRATIAK	21
WEB/BLOG-ak	39

Viernes 07.04.23
EL DIARIO VASCO

| BIDASOA | 17

IRUN

«Hace 20 años lo ecológico se veía como algo de personas raras y hippies»

La feria ecológica Bioterra cumplirá dos décadas de existencia en la edición que se celebrará en junio

E. PRIETO

Irún. Florea acogerá del 2 al 4 junio la vigésima edición de Bioterra, una cita consolidada en el calendario del recinto ferial que se ha convertido en una referencia para el sector. A dos meses vista de su celebración, la feria ecológica se encuentra en la elaboración de un programa para el que ya tiene más de 80 expositores confirmados.

La organización trabaja en una edición especial que será fiel al espíritu con el que nació en 2004. «Creemos que si no eres parte de la solución eres parte del problema porque nuestra forma de consumo puede cambiar el mundo», señala Maialen Gastañaga. La directora de Bioterra explica que «la emergencia climática es el mayor desafío al que nos enfrentamos. Nuestra recomendación



Arantza Eguzkiza, presidenta de Ekolurra, y Maialen Gastañaga, directora de Bioterra.

tos. Disponible en las redes sociales de la feria ecológica, «utiliza la imagen de un árbol desde que se planta la primera semilla hasta que se convierte en un árbol fuerte y frondoso. Es un

apunta que el mayor crecimiento se produjo en Araba, «porque es donde más superficie agraria hay en Euzkadi». La producción animal mantiene una tendencia al alza del 8% aunque la mayoría

EN BREVE

EN EL SATZOKI

EJ-PNV de Irún celebra este domingo el Aberri Eguna

EJ-PNV de Irún celebrará este domingo, día 9, el Aberri Eguna. El acto comenzará a las 12.00 frente al Batzoki, en la calle Mayor, donde se izará la Ikurrina. Habrá una conmemoración hacia los alderdikides fallecidos y el coro Nabarretzen ofrecerá una actuación. Desde EJ-PNV animan a la ciudadanía a sumarse a la celebración y a que «coloquen sus Ikurrinas en algún lugar visible de su vivienda».

EXPOSICIÓN EN EL JUNCAL

Hoy es el último día para ver los pasos de Semana Santa

Hoy, Viernes Santo, es el último día en que puede visitarse la exposición de los pasos de Semana Santa. Las imágenes, que formaban parte de la procesión que se celebraba en Irún hasta 1980, han sido restauradas durante la última década y se hallan expuestas en la iglesia de Santa María del Juncal. La muestra puede vi-

Courrier français
21 avril 2023

LANDES

Culture

Chez nos voisins du Pays Basque

INFO-LANDES

Patrimoine culturel et culturel : Semaine Sainte à Hondarribia

Moins médiatisé qu'en Andalousie, Madrid ou Saragosse pour ne citer que certaines des plus connues et courues en Espagne, le rituel des processions de la Semaine Sainte en Pays Basque péenninsulaire est toujours très suivi et rassemble. Les plus célèbres sont sans nul doute celles de Segura et Azkoitia en Guipuzcoa et Bilbao en Biscaye. Sans se déphacer aussi loin, Hondarribia en son église paroissiale Santa Maria de la Asunción y del Manzano rassemblent paroissiens et visiteurs durant les actes de la Semaine Sainte, avec les temps les plus forts le Vendredi Saint et le Dimanche de Pâques.

Vendredi Saint, cérémonie et lecture de la Passion du Christ au cours de laquelle est précédée la descente de la Croix, suivie d'une procession dans les rues de la Vieille-Ville.

Le rituel est immuable, depuis le début du XVII^e siècle au moins. Sortant du bâtiment abritant l'actuelle mairie, dans la Kale Nagusia (Calle Mayor, Grand Rue) quatre musiciens – deux trombones, un tuba et une caisse claire – précèdent un centurion et dix-huit soldats Romains, remontant la rue en direction de l'église d'un pas lent et mesuré.

Impressionnant silence tout au long de la cérémonie de la Passion, seuls sons en dehors des lectures de textes et des chants, ceux des coups de marteau pour démolir le Christ articulé (une œuvre don-

foudroyés et tombent à terre... Apeurés, ils sortent de l'église et défilent dans les rues tandis que la célébration continue. Christ est ressuscité ! Après le deuil la fête populaire peut commencer : Soka Murtura (encierro) dans les rues préalablement sécurisées, et Poteo en famille ou entre amis. Presque comme un dimanche ordinaire.

Le port de Bayonne reste confiant et continue d'investir malgré l'impact du conflit russo-ukrainien sur ses trafics en 2022

En 2022, l'activité du port de Bayonne a été doublement impactée. D'abord par le conflit russo-ukrainien qui a mis un coup d'arrêt brutal aux démantèrages de nouveaux trafics en provenance de la mer Noire et d'autre part à cause de la crise énergétique qui s'en est suivie.

La conjonction de ces facteurs se traduit par une baisse significative et non prévisible des tonnages réalisés au port de Bayonne de -15.11 % par rapport à 2021. La fermeture rapide des ports ukrainiens et les tensions sur les marchés russes ont contraint certains acteurs du port de Bayonne (engrais, acier et hydrocarbures notamment) à trouver de nouvelles sources d'approvisionnement. Ils ont eu à faire face à un déséquilibre entre l'offre et la demande.

Plus impactant encore, la diminution des quantités disponibles sur les marchés, la hausse massive des coûts d'achat et leur volatilité ont imposé une réduction des volumes d'échanges transitant par



Descente de la Croix. Monna SARACE

se sont maintenus moyennant quelques variations à la marge. Dans ce climat particulièrement anxiogène et peu propice aux nouveaux projets, le port de Bayonne a néanmoins réceptionné pour la première fois de son histoire du bois d'importation à destination d'un industriel local. En effet, la sécheresse qui a frappé la France et le sud-ouest en 2022 explique ces changements de flux qui sont donc certainement conjoncturels. L'année 2022 aura donc été marquée par des variations de trafics qui sont la conséquence directe d'un phénomène conjoncturel et non pas structuré. C'est pourquoi le port de Bayonne reste confiant dans l'avenir et œuvre à mettre en place les conditions d'une reprise dynamique des trafics dans les prochaines années. Il mise sur la consolidation des trafics existants et le développement de nouveaux.

La Région Nouvelle-Aquitaine et la Chambre de Commerce et d'Industrie Bayonne Pays Basque poursuivent conjointement leur politique d'investissements visant à moderniser les outils et in-

la maintenance simultanée de deux gros bateaux à quai et optimiser le report modal terrestre par train. Les investissements réalisés atteignant 30 M€ sur cette zone. Ils sont le reflet d'une volonté partagée de la Région Nouvelle-Aquitaine et de la CCI d'accompagner les entreprises dans l'accroissement des activités et leur diversification, sécurisant et confortant la compétitivité du port de Bayonne. Ces dernières investissent également, avec la mise en service d'un tout nouvel entrepôt privé de 4 000 m² en 2022 par la société Bayonnaise de Manutention Portuaire et la validation d'un programme d'extension de Silos de l'Adour sur zone avec la construction en 2023 d'un entrepôt additionnel de 3 100 m², tous deux destinés à recevoir des marchandises en vrac.

Bioterra, le plus ancien salon du Gipuzkoa, fête son 20^e anniversaire à la FICOPA (Irún)

Bioterra, le Salon basque des

Emouve de laqu de verre

ciations e dans le s ment en : À Torigi la prome logique d'informi convient que Biot faire ven de proue telles qu Vandana saru Emc de la socie Bioterra l'avenir s regain d'émérgent groupes à la socie du Salon 2 au 4 ju dra, outtr brusses un large confèrent teurs int de la par Comme (Conseil

» > VIVIR > GASTRONOMÍA

NOTICIA PATROCINADA

Goiza Isiegas, cocinera de Akari Gastroteka, EKOchef de los alimentos ecológicos de Navarra

Goiza Isiegas, propietaria y chef de Akari Gastroteka, representará a los alimentos ecológicos de Navarra. La cocinera, que asegura que utiliza productos ecológicos de Navarra por cercanía, salud y sabor, será la protagonista de los showcooking de CPAEN/NNPEK en ferias como Bioterra, Biocultura y la VIII Feria Navarra Ecológica, que se celebra en septiembre en Noáin. El primero, este domingo a las 13:00 horas en Bioterra (Irún)

f t in

≡



>> Home » Mundo Ecológico » Actualidad y Noticias Ecológicas >

Bioterra 2023: pistoletazo de salida este fin de semana en Irún

Bioterra 2023: pistoletazo de salida este fin de semana en Irún

Por Tv Bio

BasCulture
LA LETTRE DU PAYS BASQUE

Plusieurs milliers de lecteurs CHAQUE SEMAINE

PARCE QU'UN MEDIA LIBRE N'A PAS DE PRIX

BasCulture a besoin de votre SOUTIEN

BasCulture / La Lettre / FICOPA à Irún / Bioterra, le plus ancien salon du Gipuzkoa. Fête son 20^e anniversaire

LA TERRE



02/06/2023 09:10 | Monna SARACE

645 mots

FICOPA à Irún : Bioterra, le plus ancien salon du Gipuzkoa, fête son 20^e anniversaire

Bioterra, le plus ancien salon du Gipuzkoa, fête son 20^e anniversaire

ONLINE PUBLIZITATE KANPAINA

Disziplina desberdinetan aurrera eraman den online publizitate kanpaina egin da Bioterran, hainbat hizkuntzetan egin dena (euskera, gaztelania eta frantsesa): Display, SEM, sare sozialak. Hauek dira kanpaina honek izan dituen emaitzen parametro orokorretako batzuk:

INPRESIOAK	3.029.282
ERABILTZAILE BAKARRAK	948.030
KLIK KOPURUA	27.107
CTR (%) BATAZBESTEKOA	0,9%


Estos son algunos de los soportes utilizados:



SARE SOZIALAK

Hauek dira Bioterraren sare sozialei buruz jasotako datuetako batzuk:

Instagram



Azokan zehar:


- 16 publikazio, 327 story eta 38 reel argitaratu dira
- 10.570 inpresio lortu dira (publikazioen bitartez)**
- Storiek lortutako batezbesteko irismena 173,36
- profil izan dira, reel-ek berriz 835-ko profilen irismena izan dute, zuzeneko bideoek lortutakoaren antzekoa (829)

Erabiltzaileen ezaugarri nagusiak:

- Genero femeninoa
- 35 eta 44 urte bitartekoak

Bioterrako kontuak 362 jarraitzaileetan hazi da Bioterrako aurreko edizioa geroztik.

Facebook



Azokan zehar::

- 20 publikazio egin dira, eta hauekin
- 10.220 inpresio eta 1664 interakzio lortu dira

Jarraitzaileen ezaugarriak:


- Genero femeninoa
- 35 eta 44 urte bitartekoak
- Jatorria: Donostia-San Sebastián, Irún, Iruña

BESTE AKZIO BATZUK-20. URTEURRENA

BIDEOA

20. urteurrena dela eta, Bioterraren ibilbideari buruzko hausnarketa egin nahi izan da bideo formatuan. Horretarako, bi ideia landu dira: batetik, Bioterra zer den oso modu bisual eta kontzeptualean erakusten duen bideo bat, eta, bestetik, Bioterrako ekosistemaren parte direnak lekukotzak biltzen dituen beste bideo bat, honako hauen parte-hartzearekin: enpresa erakusketariak, Bioterrako publikoko pertsonak, belar-dendak, Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzailea, espezialistak eta azoka antolatzen duen taldea bera. Horrez gain, Vandana Shivaren testigantza ere jaso da, Bioterraren 2008ko edizioan hizlari gisa parte hartu baitzuen.

La vidéo est disponible pour visualisation ici: <https://youtu.be/zGS3mxUbskM>



BIOTERRA - IXKIN BERDEA

Ospakizun totem gisa, Bioterraren letra bizidunak sortu dira, Ixkinen Berdearen eskutik.

Ixkin Berdea iraunkortasunarekin eta naturarekiko errespetuarekin konprometitutako proiektua da. Bere eraikuntzan erabilitako materialek ingurumena erabat errespetatzen dute. Letretako landaredia goroldioz, likenez eta iratze liofilizatuen hostoez osatzen da, eta horrek bizitzaz eta freskotasunez beteriko giroa sortzen du.

Letra horiek ikusgai egongo dira Ficobako hallean, eta hurrengo edizio guztietan lagunduko digute, ospakizunaren, konpromisoaren eta ekosistema jasangarriaren totem gisa.



ZEINTZU DIRA ZURE IDEIA BERDEAK?

Bioterrako 1. pabiloian parte hartzeko instalazio bat egin da. Instalazio horrek Endaneak eskeinitako 4 olibondo izan ditu, eta jendearen ideia berdeen mezuak jaso dituzte.

Olibondo horietan, Bioterraren posterren atzera begirako txiki bat egin da, azokak urteotan izan duen bilakaeraren eta irudi-aldaketen erakusgarri.



BIOTERRA 2023 IRUDIETAN







ESKERRIK ASKO!

